# ENEMA OPAKUA
# ENEMA OPACO

Heste lodiaren azterketa erradiologikoa egitea da **ENEMA OPAKUA**ren bidez egindako miaketaren helburua.

Horretarako, bario-esekidura bat sartu behar da uzkitik, kanula baten bidez. Esekidura hori opakua izan behar da X izpien aurrean.

Miaketa 30-40 minutukoa izan ohi da, gehienez.

### *GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK*

- **CITRAFLEET** libratzeko erabiltzen den soluzioa denez, haren ondorioz **BEHERAKO URTSUA** gerta daiteke.
- Gerta daiteke **SABEL-DISTENTSIOA** nabaritzea.
- Hesteetako hormetan hantura larria dagoenez, **konplikazioak** sor daitezke, baina **OSO NEKEZ GERTATZEN DIRA**.
- **EZ DA PROBA EGIN BEHAR HAURDUN EGONEZ GERO**, edo **HORREN SUSMORIK EDUKIZ GERO**, erradiazio ionizatzailea erabiltzen delako.

### *PAZIENTEA PRESTATZEA*

☑ **GARRANTZITSUA** da hemen azaltzen den **PRESTAKETA** ondo egitea, hesteetan janari-hondarrik gera ez dadin. Hondar horiek zaildu egingo lukete ahia ondo pasatzea nahiz proba bera behar bezala interpretatzea.

☑ Miaketa egin baino **hiru egun LEHENAGOTIK hasita**, hondar gutxi sorrarazten duen dieta egin behar da:

| *HAUXE HAR DEZAKEZU* | *EZIN DUZU HAU HARTU* |
|---|---|
| Pastak | Entsaladak, barazkiak eta lekaleak |
| Saldak (ez barazkienak) | Fruta |
| Okela eta arraina, plantxan edo egosita | Patatak |
| Gazta gogorrak | Okela eta arraina saltsan eta erregosita |
| Zuntz gabeko gailetak | Hestebeteak |
| Ogi txigortua | Ogia |
| Iragazitako fruta-ura | Koipeak eta pastelak |
| Kafea, tea eta gas gabeko likidoak | Txokolatea eta gasdun edariak |

La exploración mediante **ENEMA OPACO** tiene como objetivo el estudio radiológico del intestino grueso.

Para ello es necesario la introducción una suspensión de bario, opaca a los Rayos X, por el ano-recto, mediante una pequeña cánula.

Es una exploración que no dura más de 30-40 minutos.

### *POSIBLES COMPLICACIONES*

- El efecto de la solución evacuante **CITRAFLEET** consiste en una **DIARREA ACUOSA**.
- Puede notar **DISTENSIÓN ABDOMINAL**.
- Las **COMPLICACIONES** debidas a la existencia de una inflamación severa de las paredes del intestino son muy poco frecuentes.
- Como en toda exploración que emplea radiación ionizante, **NO DEBERÁ SOMETERSE A ELLA SI ESTÁ EMBARAZADA O SUPONE ESTARLO**.

### *PREPARACIÓN DEL PACIENTE*

☑ Es **IMPORTANTE** que realice correctamente la **PREPARACIÓN** que se detalla a continuación, con objeto de que su intestino esté libre de residuos alimenticios que dificultarían tanto la progresión de la papilla como la correcta interpretación de la prueba.

☑ **Durante los tres días ANTERIORES** a la exploración se seguirá una dieta pobre en residuos:

| *PUEDE TOMAR* | *NO PUEDE TOMAR* |
|---|---|
| Pastas | Ensaladas, verduras y legumbres |
| Caldos (no de verduras) | Frutas |
| Carnes y pescados a la plancha o hervidos | Patatas |
| Quesos duros | Carnes y pescados en salsa o estofados |
| Galletas sin fibra | Embutidos |
| Pan tostado | Pan |
| Zumos filtrados | Grasas y pasteles |
| Café, Té y líquidos sin gas | Chocolate y bebidas con gas |

☑ Miaketaren **AURREKO EGUNEAN**:

- LEHENENGO DOSIA: arratsaldeko 16:00etan. ZORROTXO BAT **CITRAFLEET** hartuko duzu urarekin nahasia (basokada handia); eta, hurrengo 3 orduetan, apurka-apurka, 2 litro likido edan beharko duzu gutxienez: ura edo edari isotonikoak (Aquarius, adibidez), fruta-ur iragaziak, saldak, infusioak…
- BIGARREN DOSIA: gaueko 22:00etan. ZORROTXO BAT **CITRAFLEET** hartuko duzu urarekin nahasia (basokada handia); eta, hurrengo 3 orduetan, apurka-apurka, 2 litro likido edan beharko duzu gutxienez: ura edo edari isotonikoak (Aquarius, adibidez), fruta-ur iragaziak, saldak, infusioak…
- EZIN DA afaldu.

☑ **MIAKETAREN egunean:**

- **BARAURIK** joan behar zara.
- Prestaketa hau guztia paziente helduentzat da, eta miaketa agindu duen fakultatiboak gainbegiratuta egongo da beti.
- **OSPITALERATUTA** bazaude, zure probarako **ZAINKETEZ ARDURATZEN DIREN KIDEEK** prestatuko zaituzte probarako.
- **GIBELEKO EDO BIHOTZEKO GUTXIEGITASUN LARRIA** baduzu, kontsultatu medikuarekin.

☑ **Día ANTERIOR** a la exploración:

- A las 4 de la tarde. PRIMERA DOSIS: Tomará un sobre de **CITRAFLEET** disuelto en 1 vaso grande de agua, seguido de 2 litros como mínimo de agua o bebida isotónica (Aquarius, por ejemplo), zumos colados, caldos, infusiones…. a beber lentamente durante las siguientes 3 horas.
- A las 10 de la tarde SEGUNDA DOSIS: Tomará el otro sobre de **CITRAFLEET** disuelto en 1 vaso grande de agua, seguido de 2 litros como mínimo de agua o bebida isotónica (Aquarius, por ejemplo), zumos colados, caldos, infusiones…. a beber lentamente durante las siguientes 3 horas.
- NO se puede cenar

☑ **Día de la EXPLORACIÓN**:

- Debe acudir **EN AYUNAS.**
- Esta preparación va referida al paciente adulto, y siempre ha de ser supervisada por el Facultativo que prescriba la exploración.
- En el caso que Ud. se encuentre **INGRESADO** en el Hospital, la preparación para la prueba la realizará el **PERSONAL RESPONSABLE DE SUS CUIDADOS**.
- Si padece **INSUFICIENCIA RENAL O CARDIACA GRAVE** consulte con su médico.

### *BEREN BEREGI EMANDAKO BAIMENA*

Ez da beharrezkoa **baimen Informatua** ematea.

### *AUTORIZACIÓN EXPRESA*

No es necesaria la entrega del ***Consentimiento Informado***.